*Relativo al artículo cuarto de la Ley 14/1988 y artículo 40 del Decreto 156/2016:*

4.1. Egiaztatzea memoriak zuzendaritza-karguen ordainsarien koadroa duela, zeina Zirkularraren II. eranskinaren 2.a) puntuan ezarritako formatuaren araberakoa izan beharko den. Bertako zenbatekoak ez badatoz bat urteko kontuetan, goi zuzendaritzako langileen ordainsarien atalean, agertzen direnekin, azalpen bat idatzi behar da alde hori justifikatzeko.

4.1. Verificar que la memoria incluye el cuadro de retribuciones de cargos directivos de acuerdo con el formato establecido en el punto 2.a) del Anexo II de la Circular, y en caso de que los importes no coincidan con los formulados en las cuentas anuales en concepto de retribución del personal de alta dirección, se incluye una explicación que justifique tal diferencia.

4.2. 14/1988 Legearen 4. artikuluari eta 156/2016 Dekretuaren 40. artikuluari jarraikiz –artikuluak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zuzendaritza-postuen ordainsari finkoen eta aldizkakoen mugei buruzkoak dira (antzinatasuna eta kalte-ordainak kenduta)–, egiaztatu behar da ordainsariek sailburuorde kargurako ezarritakoak gainditzen ez dituztela.

4.2. Verificar que, de acuerdo con el artículo 4 de la Ley 14/1988 y el artículo 40 del Decreto 156/2016, sobre las limitaciones de las retribuciones fijas y periódicas (excluyendo antigüedad e indemnizaciones) de los puestos directivos del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, estas retribuciones no excedan de las establecidas para el cargo de viceconsejero o viceconsejera.

4.3. Kudeaketan helburuak edo emaitzak —banaka definituak— lortzeagatik bermatu gabeko kopuruko pizgarriak jasoz gero, hauek egiaztatzea:

4.3. En el caso en el que se hubieran percibido incentivos de cuantía no garantizada en atención a la consecución de objetivos o resultados en la gestión (definidos de forma individualizada), verificar que:

- Pizgarrien ezarpena sektore publikoko erakundea atxikita dagoen saileko titularraren agindu bidez onartu da, kudeaketa-planaren arabera.

- Memoriako ordainsarien koadroan azaldutako zenbatekoak bat datoz administrazio kontseiluak edo antzeko organo batek onetsitako pizgarri horiekin.

- Entitateak bere esku ditu azaldutako helburuak betetzearen ebaluazioa eta pizgarrien likidazioaren onarpena, administrazioko kontseiluak edo antzeko organo batek egina.

- Kontzeptu guztiak direla-eta —bermatu gabeko kopuruko pizgarriak barne eta antzinatasuna eta kalte-ordainak kenduta— jasotako urteko soldataren zenbatekoak inoiz ez ditu gainditzen Eusko Jaurlaritzako sailburu bati dagozkion urteko guztizko lansariak.

- la implantación de los incentivos, de acuerdo con el plan de gestión, ha sido sometida a la aprobación mediante Orden de la persona titular del departamento al que esté adscrita la entidad del sector público.

- los importes incluidos en el cuadro de retribuciones de la memoria corresponden con dichos incentivos aprobados por el Consejo de Administración u órgano similar.

- la entidad dispone de la evaluación del cumplimiento de los objetivos descritos y de la aprobación de la liquidación de los incentivos por parte del Consejo de Administración u órgano similar.

- la cuantía del salario anual percibida por todos los conceptos, incluidos los incentivos de cuantía no garantizada y excluyendo antigüedad e indemnizaciones, no excede en ningún caso de las retribuciones íntegras anuales que corresponden a un consejero o consejera del Gobierno Vasco.

*14/1988 Legearen bigarren artikuluaren 4. paragrafoari eta 156/2016 Dekretuaren 40.3 artikuluari dagokienez (antzinatasuna):*

4.4. Antzinatasunagatik zenbatekoak jasoz gero:

4.4.1 Funtzionario, estatutupeko langile edo edozein administrazio publikotako lan-kontratudun langile izateagatik hirurtekoak jasotzea onartuta duten **goi-**

*Relativo al artículo segundo, apartado 4, de la Ley 14/1988 y artículo 40.3 del Decreto 156/2016 (antigüedad):*

4.4. En el caso en el que se hubieran percibido importes en concepto de antigüedad:

4.4.1 Para los **altos cargos** que tengan reconocida la percepción de trienios por su condición de personal funcionario, estatutario o laboral de cualquier

**kargudunen** kasuan, jasotako hirurtekoak hobetutakoekin bat datozela eta ekitaldi bakoitzerako finkatzen diren oinarrizko ordainsariekin bat datozen balioa dutela egiaztatzea.

administración pública, verificar que los trienios percibidos son acordes a los perfeccionados y su valor acorde a las retribuciones básicas que se fijen para cada ejercicio.

4.4.2 Aurreko paragrafoan adierazitako baldintzagatik hirurtekoak jasotzea onartu **ez** zaien **goi-kargudunen kasuan**, honako hauek egiaztatu:

- ordaindutako hirurtekoak bat datoz bitarteko funtzionario gisa, aldi baterako estatutupeko langile gisa edo edozein administrazio publikotan edo haren mendeko entitate batean lan-kontratu finkoa edo aldi baterakoa duen langile gisa zerbitzu aktiboan emandako hiru urteko aldi bakoitzeko sortutakoekin.

- hobetzeko unean administrazio publikoetan zerbitzuak enplegatu publiko gisa eman diren lanbide-sailkapeneko azpitaldeari dagokio haren balioa, ekitaldirako ezarritako oinarrizko ordainsarien arabera.

4.4.2 Para los **altos cargos** que **no** tengan reconocida la percepción de trienios por la condición del párrafo anterior, verificar:

- que los trienios satisfechos coinciden con los devengados por cada tres años de servicios prestados en servicio activo como personal funcionario interino, estatutario de carácter temporal o personal laboral fijo o temporal en cualquier administración pública, o en una entidad dependiente de la misma.

- su valor corresponde al subgrupo de clasificación profesional en el que se hayan prestado los servicios como empleada o empleado público en las distintas administraciones públicas en el momento de su perfeccionamiento, de acuerdo con las retribuciones básicas fijadas para el ejercicio.

4.4.3 *Indarrean dagoen araudiaren arabera*, eskubide hori aitortuta duten **goi-zuzendaritzako** langileentzat (adibidez: hitzarmena), jasotako hirurtekoak burututakoekin bat datozela eta ez dutela gainditzen dagokion aurrekontuen legean antzinatasunari buruzko A1 azpitaldeari esleitutako balioa.

4.4.3 Para el **personal directivo** que, según su contrato de alta dirección, tenga reconocido este derecho *de conformidad con la normativa vigente* (p. ej.: convenio), verificar que los trienios percibidos son acordes a los perfeccionados y no exceden del valor asignado al Subgrupo A1 de antigüedad en la correspondiente ley de presupuestos.

4.4.4 **Goi-zuzendaritzako** kontratuaren arabera *erakundean zuzendaritzako langile gisa emandako zerbitzuengatik* eskubide hori aitortua duten zuzendaritzako langileentzat, honako hauek egiaztatzea:

- erakundeko gobernu-organo gorenak erabaki du antzinatasun-ordainsaria jasotzea.

- ordaindutako hirurtekoak bat datozela aipatutako erakundean zuzendaritzako langile gisa emandako hiru urteko zerbitzuengatik sortutakoekin, ez dutela gainditzen dagokion aurrekontuen legean antzinatasunari buruzko A1 azpitaldeari esleitutako balioa.

4.4.4 Para el **personal directivo** que, según su contrato de alta dirección, tenga reconocido este derecho *por servicios prestados en la entidad como personal directivo*, verificar que:

- la percepción de retribución en concepto de antigüedad ha sido acordada por el máximo órgano de gobierno de la entidad.

- los trienios satisfechos coinciden con los devengados por cada tres años de servicios prestados únicamente como personal directivo en la citada entidad y no exceden del valor asignado al Subgrupo A1 de antigüedad en la correspondiente ley de presupuestos.

*14/1988 Legearen bosgarren eta seigarren artikuluei dagokienez (kalte-ordainak):*

4.5. Egiaztatzea entitateko **goi-kargudunen** aldeko kalte-ordainak bat etorri direla, 14/1988 Legearen bosgarren artikuluak aurreikusitako araubidearekin.

4.6. Egiaztatzea entitateko **zuzendaritza-langileen** aldeko kalte-ordainak bat etorri direla, beti ere, 14/1988 Legeak aurreikusitako araubidearekin, edo, onuragarriagoak bazaizkie, langile horiei aplikatu beharreko lan-legerian jasotako aginduzko zuzenbideko gutxienekoekin.

*Relativo a los artículos quinto y sexto de la Ley 14/1988 (indemnizaciones):*

4.5. Verificar que las indemnizaciones establecidas a favor de los **altos cargos** de la entidad se han ajustado al régimen previsto en el artículo quinto de la Ley 14/1988.

4.6. Verificar que las indemnizaciones establecidas a favor del **personal directivo** de la entidad se han ajustado en todo caso al régimen previsto en la Ley 14/1988 o, si les resultaran más beneficiosos, a los mínimos de derecho necesario contenidos en la legislación social que les fuera de aplicación.

5. Erakundeko plantillari dagokionez:

5.1. Egiaztatzea memoriak dagokion koadroa duela, Zirkularraren II. eranskineko 2.b) puntuan ezarritako formatuaren arabera.

5. Con relación a la plantilla de la entidad:

5.1. Verificar que la memoria incluye el cuadro correspondiente, de acuerdo con el formato establecido en el punto 2.b) del Anexo II de la Circular.

5.2. Egiaztatzea Egiturazko Plantillari dagozkion Hasierako Aurrekontuaren zutabeko zifrak bat datozela ekitaldian EAErako onartutako aurrekontuetan "EAEko SEKTORE PUBLIKOAREN AURREKONTU-PLANTILLA" argitalpenean jasotakoekin; eta ekitaldi-amaierako batez besteko plantilla osoa bat datorrela erakundearen urteko kontuetan sartutako informazioarekin.

5.3. Egiaztatzea memorian Aurrekontu Eguneratuaren eta Batez Besteko Plantillaren arteko desberdintasun nagusiei buruzko azalpen labur bat dagoela.

5.2. Verificar que las cifras de la columna Presupuesto Inicial correspondientes a la Plantilla Estructural coinciden con las recogidas en la publicación "PLANTILLA PRESUPUESTARIA DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE", incluida en los presupuestos aprobados para la CAE en el ejercicio; y que la plantilla media total al cierre del ejercicio concuerda con la información incluida en las cuentas anuales de la entidad.

5.3. Verificar que la memoria incluye una breve explicación sobre las principales diferencias entre el Presupuesto Actualizado y la Plantilla Media.

6. Egiaztatzea ea EAErako onetsitako aurrekontuek geroko konpromisorik jasotzen duten sozietatearen / erakundearen / fundazioaren alde. Erantzuna baiezkoa bada:

   6.1. Egiaztatu ea memoriak gerorako konpromisoak erabiltzeko koadroa jasota ote duen, Zirkularraren II. eranskinei 3) puntuan ezarritako formatuari jarraikiz, eta honako hau:

   - Hasierako kreditua bat dator ekitaldirako Aurrekontuen Legearen I. eranskinean erakundearentzat onartutakoarekin.
   - Kreditu eguneratua bat dator erakundearen D LIBURUKO AURREKONTUA plantillako konpromiso-kredituekin, ekitaldiko segimendu ikuskatuan (EIKA aplikazioa).
   - Ekitaldian konprometitutako zenbatekoa bat dator erakundearen D LIBURUKO AURREKONTUA plantillaren etorkizuneko konpromisoekin (egindakoa), ekitaldiaren segimendu ikuskatuan (EIKA aplikazioa).
   - Ekitaldian konprometitutako zenbatekoa bat dator erakundearen urteko kontuetan jasotako konpromisoen zenbatekoarekin edo, hala ez bada, desadostasun horren arrazoia azaltzen da.

   6.2. Egiaztatu 2025/12/31ra arte ez dela konprometitu ekitaldirako eguneratutako kreditua gainditzen duen zenbatekorik, kontuan hartuta, Euskadiko aurrekontu araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bateginaren 97.3. artikuluak xedatzen duena: gerorako konpromisoen egoera handiagotu ahal izateko, konpromiso berriak onartuz edo

6. Verificar si los presupuestos aprobados para la CAE incluyen compromisos futuros a favor de la Sociedad /el Ente/Fundación. En caso afirmativo:

   6.1. Verificación de que la memoria incluye el cuadro de utilización de compromisos futuros de acuerdo con el formato establecido en el punto 3 del Anexo II de la Circular y que:

   - El crédito inicial coincide con el aprobado para la entidad en el Anexo I de la Ley de Presupuestos del ejercicio.
   - El crédito actualizado coincide con los créditos de compromiso de la plantilla PRESUPUESTO, del LIBRO D de la entidad, en el seguimiento auditado del ejercicio (aplicación EIKA).
   - El importe comprometido en el ejercicio coincide con los compromisos futuros (realizado) de la plantilla PRESUPUESTO, del LIBRO D de la entidad, en el seguimiento auditado del ejercicio (aplicación EIKA).
   - El importe comprometido en el ejercicio coincide con el importe de compromisos incluido en las cuentas anuales de la entidad, o en caso contrario, que se incluye una explicación del motivo de esta discrepancia.

   6.2. Verificar que a 31/12/2025 no se haya comprometido una cifra superior al Crédito actualizado para el ejercicio, teniendo en cuenta que tal y como establece el art. 97.3 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de régimen presupuestario de Euskadi, el incremento del estado de compromisos futuros, aprobando nuevos compromisos o aumentando el

baimendutakoen zenbatekoa handiagotuz, beharrezkoa da Gobernu Kontseiluaren akordioa, aurrekontuen alorrean eskumena duen sailaren proposamenari jarraikiz, edota, hala badagokio, EAEko sektore publikoko zuzenbide pribatuko erakunde publikoez, sozietate publikoez eta fundazioez arduratzen diren organoen proposamenari jarraituz; betiere, erakunde guztientzat hasieran baimendutakoen guztirako zenbatekoaren %15ean handiagotu ahal izango dira gehienez, eta, hiru hilean behin, baimen horien berri eman beharko zaio Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari.

importe de los autorizados, requiere Acuerdo de Consejo de Gobierno a propuesta del departamento competente en materia de presupuestos y, en su caso, de los órganos responsables de los Entes Públicos de Derecho Privado, Sociedades Públicas y Fundaciones del sector público de la CAE, siempre con el límite de un 15% del importe global de los inicialmente autorizados para el conjunto de entidades, debiendo darse cuenta de tales autorizaciones trimestralmente a la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco.

7. Ondasun- eta zerbitzu-hornitzaileei eta ibilgetuko ondasun-hornitzaileei 2025eko ekitaldian egindako ordainketen gaineko informazioan, orobat 2025/12/31n ordaindu gabe zeuden saldoei buruzkoan, honako prozedurak egin ditugu:

    7.1. Egiaztatu dugu memoriak barne duela informazio horri buruzko taula, Zirkularraren II. eranskinaren 4. puntuan ezarritako formatuaren araberakoa.

    7.2. Egiaztatu dugu hornitzaileei egindako ordainketen eta hornitzaileei ordaindu gabeko saldoen gaineko informazioa, ekitaldiko urteko kontuetan sartu dena, bat datorrela sozietateak/enteak/fundazioak aurreko 7.1 apartatuan aipatu den taulan sartu dituen zenbatekoekin.

7. Con relación a la información sobre los pagos realizados a los proveedores (tanto de bienes y servicios como de bienes de inmovilizado) durante el ejercicio 2025, y los saldos pendientes de pago al 31/12/2025, hemos realizado los siguientes procedimientos:

    7.1. Verificar que la memoria incluye el cuadro correspondiente a dicha información de acuerdo con el formato establecido en el punto 4 del Anexo II de la Circular.

    7.2. Comprobar que toda aquella información referente a pagos realizados y saldos pendientes de pago a proveedores incluida en las cuentas anuales del ejercicio cuadra/concilia con los importes consignados por la Sociedad/Ente/Fundación en el cuadro citado en el apartado 7.1 anterior.

7.3. 2025eko ekitaldian hornitzaileei ordainketarik eginez gero 30 eguneko epea gaindituta, eta/edo ekitaldiaren itxieran, 2025/12/31n, hornitzaileei ordaindu gabeko saldorik izanez gero (30 eguneko gehieneko epetik gorakoak), memoriak badakar atzerapen horien motibo / zio / arrazoiei buruzko azalpen laburra.

7.3. Que, en el caso de que durante el ejercicio 2025 se hayan realizado pagos a proveedores en un plazo superior a los 30 días, y/o de que al cierre del ejercicio 31/12/2025 existan saldos pendientes de pago que acumulen un plazo superior a los 30 días, la memoria incluye una breve explicación de los motivos / causas / razones de tales retrasos.

8. Eskatzea adierazpen-gutun bat, sozietatearen zuzendaritzaren sinadura beharko duena.

8. Solicitar una carta de manifestaciones firmada por la Dirección de la Sociedad.

Arestian aipatutako prozedurak aplikatzean ez da gorabeherarik ikusi, jarraian adierazten diren gertakari zehatzak izan ezik:

De la aplicación de los procedimientos indicados anteriormente no se han puesto de manifiesto incidencias, salvo los hechos concretos que se detallan a continuación:

*Administrazio-kontratazioaren arloko egiaztapenari dagokionez:*

1813 Espedientea "Aholkularitza teknikoa eta ingurumenekoa, Euskadiko Hondakinen Ingurumen Azpiegituren Lurraldearen Arloko Plana (LAP IIAA) egiteko aurretiazko lanetarako eta laguntzarako."

- Espedienteen kudeatzailearekin izandako akats baten ondorioz, kontratugilearen profilean eta EBAOn formalizatzeko iragarkia ez zen egin legez ezarritako epean, eta egin behar zen egunetik lau hilabetera egin zen.

*En relación a la verificación en materia de contratación administrativa:*

**Expediente 1813 "Consultoría experta técnica y ambiental para los trabajos previos y de apoyo para la elaboración del Plan Territorial Sectorial de las infraestructuras ambientales de residuos en Euskadi (PTS IIAA)"**

- Debido a un error con el gestor de expedientes, el anuncio de formalización en el Perfil del Contratante y en el DOUE no se realizó en el plazo legalmente establecido, llevandose a cabo cuatro meses después de la fecha en que debía haberse realizado.

*Partida mugatzaileen egiaztapenari dagokionez:*

- 2020an eta 2021ean, ETE Zirkularren Laguntza Programen eta Ekoberrikuntza Zirkularreko Laguntzen eta tokiko ekoberrikuntza klimatikoko Laguntzen esparruan proiektuak finantzatzeko Ebazpenak argitaratu ziren, eta gastu horiek proiektuen aurrerapen-mailaren arabera gauzatu dira, gutxi gorabehera 3.700.000 euroko zenbatekoan. 2025ean azken dirulaguntza espedienteak likidatu ziren, 10.251 euroko dirulaguntza gastua egon baitzen, "ekitaldiko emaitzari erantsitako ustiapen dirulaguntzak" kontuan diru-sarrera batekin, zenbateko baliokidearekin. Dirulaguntza arrunten partida

*En relación con la verificación de partidas limitativas:*

- En 2020 y 2021 se publicaron las Resoluciones para financiar proyectos en el marco de los Programas de Ayudas PYME Circular y Ayudas en Ecoinnovación Circular y Ayudas de ecoinnovación climática local, gastos que se han ido haciendo efectivos en función del grado de avance de los proyectos, por un importe aproximado de 3.700.000 euros. En 2025 se liquidan los últimos expedientes de subvención habiendo habido un gasto de subvenciones de 10.251 euros con un ingreso, por un importe equivalente, en la cuenta "subvenciones de explotación incorporados al resultado del ejercicio". Tanto por la escasa materialidad del importe, como por el efecto nulo en

mugatzailea bete da, bai zenbatekoaren materialtasun eskasagatik, bai aurrekontuari dagokionez izan duen eragin nuluagatik.

términos de presupuesto, se cumple la partida limitativa de subvenciones corrientes.

Deskribatutako prozedurak ikuskaritza bat edo Ikuskaritzako Arau Teknikoen arabera egindako berrikuspen bat ez direnez, ez dugu iritzirik emango memorian (eta, hala badagokio, eranskinetan) azaldutako informazioari buruz. Prozedura osagarriak aplikatu izanez gero, litekeena zen beste gai batzuk azaldu izana, eta horiei buruzko txostena ere egingo genuen.

Debido a que los procedimientos descritos no constituyen ni una auditoría, ni una revisión hecha de acuerdo con Normas Técnicas de Auditoría, no expresamos una opinión sobre la información contenida en la memoria *(y, en su caso, en los Anexos adjuntos)*. Si se hubieran aplicado procedimientos adicionales, se podrían haber puesto de manifiesto otros asuntos sobre los cuales les habríamos informado.

Aurrekontua betetzeari eta legezkotasunari buruzko adostutako prozeduren txosten hau bakarrik ematen da Eusko Jaurlaritzak 2025eko ekainaren 10ean hartutako akordioaren testuinguruan ezarritako helburua betetzeko, baita zu informatzeko ere, baina ezin da beste helbururen baterako erabili, eta, aurretiaz baimendu ez badugu, ezin izango zaie beste batzuei banatu, salbu eta horiek badira Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, sozietatea/entea/fundazioa atxikita dagoen Eusko Jaurlaritzako sailak eta lege-aginduz eska lezaketen beste batzuk. Ez dugu inolako erantzukizunik izango txosten honen hartzaileak ez diren hirugarrenen aurrean.

Nuestro informe de procedimientos acordados sobre el cumplimiento presupuestario y de la legalidad se emite únicamente para la finalidad establecida en el contexto del Acuerdo adoptado por el Gobierno Vasco de fecha 10 de junio de 2025 y para su información y no puede ser usado para ningún otro fin o ser distribuido a terceros, sin nuestro consentimiento previo, distintos de la Oficina de Control Económico, el Tribunal Vasco de Cuentas Pública, los Departamentos del Gobierno Vasco a los que estuviese adscrita la Sociedad/el Ente/Fundación y otros que pudieran solicitarlo por imperativo legal. No asumimos ninguna responsabilidad frente a terceros distintos de los destinatarios de este informe.

Txosten honetan hauxe baino ez da aztertzen: Ihobe, S.A.ko zuzendaritzak emandako informazioa, aurreko ataletan aipatu dugun araudia bete izanari buruzkoa. Txostenaren xedea, beraz, ez da sozietatearen/entearen/fundazioaren finantza-egoerak aztertzea, oro har hartuta.

Este informe se refiere exclusivamente a la información facilitada por la dirección de Ihobe, S.A., S.A, relativa al cumplimiento de la normativa aplicable a la que hemos hecho referencia en los apartados anteriores y no a los estados financieros de la Sociedad/el Ente/Fundación, considerados en su conjunto.

[Sinadura (ez KIEOko kide gisa)]

Bilbao, 2026ko martxoaren 27an.

***[Firma (no como miembro del ROAC)]***

En Bilbao, a 27 de marzo de 2026.

BETEAN AUDITORÍA, S.L.P.

José Ignacio Miguel Salvador

# Ihobe SA sozietateko aurrekontua betetzeari eta legezkotasunari buruzko memoria

# Memoria de cumplimiento presupuestario y de legalidad de Ihobe, S.A.

*2025eko ekitaldia*

**Ejercicio 2025**

*Bilbo, 2026ko martxoaren 26a*

Bilbao, 26 de marzo de 2026

ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y SOSTENIBILIDAD

## 1. Ustiapen- eta kapital-aurrekontuak eta aurreikusitako helburuak

### 1.a. Aurrekontuaren exekuzioa

## 1. Presupuestos de explotación y capital así como objetivos previstos

### 1.a. Ejecución del presupuesto

**Aurrekontua. Laburpena**

**Presupuesto. Resumen**

| ZUZKIDURAK<br>*DOTACIONES* | AURREKONTUA<br>*PRESUPUESTO* | | | EGINDAKOA<br>*REALIZADO* | ALDEA<br>*DIFERENCIA* | % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | HASIERAKOA<br>*INICIAL* | ALDAKETA<br>*MODIFICACIÓN* | EGUNERATUA<br>*ACTUAL* | | | |
| ERAGIKETA ARRUNTAK<br>*OPERACIONES CORRIENTES* | | | | | | |
| 1 PERTSONAL-GASTUAK<br>*GASTOS DE PERSONAL* | 4.768.129 | 0 | 4.768.129 | 4.077.057 | 691.072 | 85,5 |
| 2 FUNTZIONAMENDU-GASTUAK<br>*GASTOS DE FUNCIONAMIENTO* | 7.589.080 | 2.360.000 | 9.949.080 | 12.230.207 | (2.281.127) | 122,9 |
| 4 ERAGIKETA ARRUNTETARAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUN<br>*TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES PARA OPERACIONES CORRIEN* | 0 | 0 | 0 | 10.251 | (10.251) | --- |
| KAPITAL-ERAGIKETAK<br>*OPERACIONES DE CAPITAL* | | | | | | |
| 6 INBERTSIO ERREALAK<br>*INVERSIONES REALES* | 50.000 | 0 | 50.000 | 46.842 | 3.158 | 93,7 |
| ZUZKIDURAK, GUZTIRA<br>*TOTAL DOTACIONES* | 12.407.209 | 2.360.000 | 14.767.209 | 16.364.357 | (1.597.148) | 110,8 |

| BALIABIDEAK<br>*RECURSOS* | AURREKONTUA<br>*PRESUPUESTO* | | | EGINDAKOA<br>*REALIZADO* | ALDEA<br>*DIFERENCIA* | % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | HASIERAKOA<br>*INICIAL* | ALDAKETA<br>*MODIFICACIÓN* | EGUNERATUA<br>*ACTUAL* | | | |
| ERAGIKETA ARRUNTAK<br>*OPERACIONES CORRIENTES* | | | | | | |
| 3 TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTELAKO SARRERAK<br>*TASAS, PRECIOS PÚBLICOS Y OTROS INGRESOS* | 745.000 | 0 | 745.000 | 525.110 | 219.890 | 70,5 |
| 4 ERAGIKETA ARRUNTETARAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUN<br>*TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES PARA OPERACIONES CORRIEN* | 11.612.209 | 2.360.000 | 13.972.209 | 15.724.897 | (1.752.688) | 112,5 |
| 5 ONDARE-SARRERAK<br>*INGRESOS PATRIMONIALES* | 0 | 0 | 0 | 8.094 | (8.094) | --- |
| KAPITAL-ERAGIKETAK<br>*OPERACIONES DE CAPITAL* | | | | | | |
| 7 ERAGIKETA ARRUNTETARAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUN<br>*TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES PARA OPERACIONES DE CAPIT* | 50.000 | 0 | 50.000 | 0 | 50.000 | 0,0 |
| 8 AKTIBO FINANTZARIOEN MURRIZKETA<br>*DISMINUCIÓN DE ACTIVOS FINANCIEROS* | 0 | 0 | 0 | 106.256 | (106.256) | --- |
| BALIABIDEAK, GUZTIRA<br>*TOTAL RECURSOS* | 12.407.209 | 2.360.000 | 14.767.209 | 16.364.357 | (1.597.148) | 110,8 |

# Aurrekontua eta legezkotasuna betetzeari buruzko memoria - Memoria de cumplimiento presupuestario y de legalidad

## Aurrekontua. Zuzkidurak — Presupuesto. Dotaciones

| | ZUZKIDURAK *DOTACIONES* | AURREKONTUA *PRESUPUESTO* HASIERAKOA *INICIAL* | ALDAKETA *MODIFICACIÓN* | EGUNERATUA *ACTUAL* | EGINDAKOA *REALIZADO* | ALDEA *DIFERENCIA* | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | **PERTSONAL-GASTUAK** ***GASTOS DE PERSONAL*** | **4.768.129** | **0** | **4.768.129** | **4.077.057** | **691.072** | **85,5** |
| 10 | GOI-KARGUDUNAK *ALTOS CARGOS* | 89.820 | 0 | 89.820 | 87.192 | 2.628 | 97,1 |
| 13 | LAN-KONTRATUDUNAK *LABORALES* | 3.436.563 | 0 | 3.436.563 | 2.963.496 | 473.067 | 86,2 |
| 16 | KUOTAK, PRESTAZIOAK ETA GASTU SOZIALAK *CUOTAS, PRESTACIONES Y GASTOS SOCIALES* | 1.241.746 | 0 | 1.241.746 | 1.026.369 | 215.377 | 82,7 |
| 2 | **FUNTZIONAMENDU-GASTUAK** ***GASTOS DE FUNCIONAMIENTO*** | **7.589.080** | **2.360.000** | **9.949.080** | **12.230.207** | **(2.281.127)** | **122,9** |
| 20 | ERRENTAMENDUAK ETA KANONAK *ARRENDAMIENTOS Y CÁNONES* | 0 | 0 | 0 | 286 | (286) | 0.0 |
| 21 | KONPONKETAK, MANTENTZE-LANA ETA KONTSERBAZIOA *REPARACIONES, MANTENIMIENTO Y CONSERVACIÓN* | 5.000 | 0 | 5.000 | 1.186.393 | (1.181.393) | 23.727,9 |
| 22 | BULEGOKO MATERIALA, HORNIGAIAK ETA KOMUNIKAZIOAK *MATERIAL DE OFICINA, SUMINISTROS Y COMUNICACIONES* | 127.500 | 0 | 127.500 | 156.271 | (28.771) | 122,6 |
| 23 | HAINBAT GASTU *GASTOS DIVERSOS* | 7.455.580 | 2.360.000 | 9.815.580 | 10.851.657 | (1.036.077) | 110,6 |
| 24 | BESTELAKO ENPRESA ETA PROFESIONALEN LANAK *TRABAJOS REALIZADOS POR OTRAS EMPRESAS Y PROFESIO.* | 1.000 | 0 | 1.000 | 35.600 | (34.600) | 3.560,0 |
| 4 | **ERAGIKETA ARRUNTETARAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRUL.** ***TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES PARA OPE. CORRIENTES*** | **0** | **0** | **0** | **10.251** | **(10.251)** | **---** |
| 45 | ENPRESENTZAT, FAMILIENTZAT IRABAZI-ASMORIK GABEKO *A EMPRESAS, FAMILIAS, INSTIT. SIN FINES LUCRO ISFL* | 0 | 0 | 0 | 10.251 | (10.251) | 0.0 |
| 6 | **INBERTSIO ERREALAK** ***INVERSIONES REALES*** | **50.000** | **0** | **50.000** | **46.842** | **3.158** | **93,7** |
| 61 | INBERTSIO MATERIALAK *INVERSIONES MATERIALES* | 50.000 | 0 | 50.000 | 46.842 | 3.158 | 93,7 |
| | **ZUZKIDURAK, GUZTIRA** ***TOTAL DOTACIONES*** | 12.407.209 | 2.360.000 | 14.767.209 | 16.364.357 | (1.597.148) | 110,8 |

## Aurrekontua. Baliabideak — Presupuesto. Recursos

| | BALIABIDEAK *RECURSOS* | AURREKONTUA *PRESUPUESTO* HASIERAKOA *INICIAL* | ALDAKETA *MODIFICACIÓN* | EGUNERATUA *ACTUAL* | EGINDAKOA *REALIZADO* | ALDEA *DIFERENCIA* | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | **TASAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTELAKO SARRERAK** ***TASAS, PRECIOS PÚBLICOS Y OTROS INGRESOS*** | **745.000** | **0** | **745.000** | **525.110** | **219.890** | **70,5** |
| 34 | SALMENTAK ETA ZERBITZU-PRESTAZIOAK *VENTAS Y PRESTACIONES DE SERVICIOS* | 20.000 | 0 | 20.000 | 25.700 | (5.700) | 128,5 |
| 36 | ZUZENBIDE PRIBATUKO BESTELAKO SARRERAK *OTROS INGRESOS DE DERECHO PRIVADO* | 725.000 | 0 | 725.000 | 499.410 | 225.590 | 68,9 |
| 4 | **ERAGIKETA ARRUNTETARAKO TRANSFERENTZIAK ETA DIRUL.** ***TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES PARA OPE. CORRIENTES*** | **11.612.209** | **2.360.000** | **13.972.209** | **15.724.897** | **(1.752.688)** | **112,5** |
| 40 | EAEKO SEKTORE PUBLIKOTIK *DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE* | 11.612.209 | 2.360.000 | 13.972.209 | 15.724.897 | (1.752.688) | 112,5 |
| 5 | **ONDARE-SARRERAK** ***INGRESOS PATRIMONIALES*** | **0** | **0** | **0** | **8.094** | **(8.094)** | **---** |
| 53 | BESTELAKO SARRERA FINANTZARIOAK *OTROS INGRESOS FINANCIEROS* | 0 | 0 | 0 | 8.094 | (8.094) | --- |
| 7 | **KAPITAL-ERAGIKETETARAKO TRANFERENTZIAK ETA DIRUL.** ***TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES PARA OPE. CAPITAL*** | **50.000** | **0** | **50.000** | **0** | **50.000** | **0,0** |
| 70 | EAEKO SEKTORE PUBLIKOTIK *DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE* | 50.000 | 0 | 50.000 | 0 | 50.000 | 0,0 |
| 8 | **AKTIBO FINANTZARIOEN MURRIZKETA** ***DISMINUCIÓN DE ACTIVOS FINANCIEROS*** | **0** | **0** | **0** | **106.256** | **(106.256)** | **---** |
| 87 | GERAKINAK *REMANENTES* | 0 | 0 | 0 | 106.256 | (106.256) | --- |
| | **BALIABIDEAK, GUZTIRA** ***TOTAL RECURSOS*** | **12.407.209** | **2.360.000** | **14.767.209** | **16.364.357** | **(1.597.148)** | **110,8** |

## Aurrekontuaren desbideratzeen azterketa

### a) Pertsonal-gastuak

2026ko ekitaldirako, soldata-banden bidez garapen profesionala hedatzeko prozedura negoziatzeke dago. Tresna hau garapen pertsonal eta profesionaleko hainbat kasuistika eta erritmo estaltzera bideratuta dago, eta 2023an sinatutako Hitzarmen Kolektiboaren 9. artikuluan jasotzen da. 2025eko aurrekontuak beharrezko finantzaketa jasotzen zuen, 450.000 euro ingurukoa, Gizarte Segurantzako kotizazioei dagokien kostua barne.

Horrez gain, batez beste lau absentzia-egoera gertatu dira, epe ertainera edo luzera, ordezkapen-prozesuan, eta horrek gastu txikiagoa ekarri du, 200.000 euro ingurukoa.

### b) Funtzionamendu-gastuak

"Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa" epigrafeak, funtsean, obra hauek jasotzen ditu: energia berriztagarriko instalazioak berritzea, Urdaibaiko Ekoetxearen kanpoko jarduketak, ureztatzeko lehen mailako sarea eta bideak, eta Urdaibaiko Ekoetxean patioa egokitzeko obrak. Obra horiek egiteagatik 2025eko ekitaldian sortutako gastuaren finantzaketa ia osoa, 1.181.393 euro inguru, 2024ko ekitaldian egindako aurrekontu-aldaketaren bidez artikulatu zen. Sarrera aitortzeko aplikatu den irizpidea jarduketen aurrerapen-maila izan da (1.005.000 euro 2025ean).

Urdaibaiko Ekoetxean erakusketa iraunkorra hornitzeko eta instalatzeko lanak 1.098.000 eurokoak izan dira. 700.000 euro arte aurreko ekitaldietako aurrekontu-aldaketen bidez finantzatu ziren, helburu horretarako, eta gainerakoa 2025eko ekitaldiko ustiapen-aurrekontuaren kargura.

## Análisis de las desviaciones del presupuesto

### a) Gastos de personal

Queda pendiente para el ejercicio 2026 la negociación del procedimiento de despliegue del desarrollo profesional a través de las bandas salariales. Esta herramienta está destinada a cubrir diferentes casuísticas y ritmos de desarrollo personal y profesional, y se contempla en el artículo 9 del Convenio Colectivo firmado en 2023. El presupuesto 2025 recogía la financiación necesaria, por aproximadamente 450.000 euros, incluyendo el coste correspondiente a las cotizaciones a la seguridad social.

Adicionalmente, se han producido una media de cuatro situaciones de ausencia, a medio o largo plazo, en proceso de sustitución, que ha supuesto un menor gasto por aproximadamente 200.000 euros.

### b) Gastos de funcionamiento

El epígrafe "reparaciones, mantenimiento y conservación" recoge, fundamentalmente, las obras de: renovación de las instalaciones de energía renovable, las actuaciones exteriores de Ekoetxea Urdaibai, caminos y red primaria de riego y las obras de adecuación del patio en Ekoetxea Urdaibai. La práctica totalidad de la financiación del gasto generado en el ejercicio 2025 por la ejecución de dichas obras, 1.181.393 euros aproximadamente, se articuló mediante modificación presupuestaria en el ejercicio 2024. El criterio aplicado para el reconocimiento del ingreso ha sido el grado de avance de las actuaciones, 1.005.000 euros en 2025.

Los trabajos de "suministro e instalación de la exposición permanente en Ekoetxea Urdaibai, han supuesto un importe de 1.098.000 euros. Hasta 700.000 euros se financiaron con las modificaciones presupuestarias de ejercicios anteriores, destinadas a dicho fin, y el resto

con cargo al Presupuesto de Explotación del ejercicio 2025.

c) Tasak, prezio publikoak eta bestelako sarrerak

Aurrekontuan 250.000 euroko sarrera bat aurreikusten zen, "Energiaren Euskal Erakundearen eta Ihobe SA Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren arteko lankidetza-hitzarmenarekin lotutako jarduketen ondorioz, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legea garatzeko eta hedatzeko". Azkenean, entitate bakoitzak bere gain hartu ditu bere kostuak.

c) Tasas, precios públicos y otros ingresos

El presupuesto contemplaba un ingreso de 250.000 euros fruto de las actuaciones relacionadas con el “Convenio de colaboración entre el Ente vasco de la energia y la Sociedad pública de gestión ambiental, Ihobe, S.A., para el desarrollo y despliegue de ley 1/2024 de transición energética y cambio climático”. Finalmente, cada una de las entidades ha asumido sus costes.

d) Eragiketa arruntetarako transferentziak eta dirulaguntzak

Funtzionamendu-gastuen epigrafean azaldu denez, 2025ean aurrerapen-mailarekin lotutako 2024ko ekitaldiko dirulaguntzen sarrerak aitortu dira, batez ere ekoetxearen obrenak, 1.705.000 euro inguruko zenbatekoaz.

d) Transferencias y subvenciones para operaciones corrientes

Tal y como se ha explicado en el epígrafe de gastos de funcionamiento, durante 2025 se han reconocido ingresos de subvenciones del ejercicio 2024 relacionadas con el grado de avance, de las obras de la ekoetxea principalmente, por 1.705.000 euros aproximadamente.

e) Kapital-eragiketetarako transferentziak eta dirulaguntzak

2025eko ekitaldiko inbertsioak, 47.000 inguruko zenbatekoaz, 2024an Birziklatze Zentro Aurreratuaren higiezina besterentzeagatik sortutako soberakinaren kontura finantzatu dira.

e) Transferencias y subvenciones para operaciones de capital

Las inversiones del ejercicio 2025, por 47.000 aproximadamente, se han financiado con cargo al remanente generado en 2024, por la enajenación del inmueble del Centro Avanzado de Reciclaje.

f) Aktibo finantzarioak, gerakinak, gutxitzea

f) Disminución de activos financieros, remanentes

Aurreko puntuan, ekitaldiko inbertsioen finantzaketari buruzkoan, adierazitakoan datza arrazoia.

La razón reside en lo comentado en el punto anterior, relativo a la financiación de las inversiones del ejercicio.

## 1.b. Izaera mugaduneko kontzeptuak

## 1.b. Conceptos con carácter limitativo

Zenbait aurrekontu-kontzepturen izaera mugatzailea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko aurrekontu araubideko lege xedapenen testu bateginaren 54.2 artikuluari dagokionez, esan behar da eman beharreko finantza-inbertsio, langile-gastu eta besteren baliabide partidek, transferentzia eta dirulaguntza arrunten eta kapital dirulaguntzen baturak eta ibilgetu material eta ukiezineko inbertsioenak ez dutela gainditzen gaur egun onartutako aurrekontua.

En relación con el artículo 54.2 del Texto Refundido de las disposiciones legales sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo, que regula el carácter limitativo de determinados conceptos presupuestarios, indicar que las partidas inversiones financieras, gastos de personal, recursos ajenos, la suma de las transferencias y subvenciones corrientes y de capital a conceder y la suma de las inversiones en inmovilizado material e intangible, no exceden el presupuesto actualizado aprobado.

## 1.c. Ekitaldirako programatutako helburuen betetze-maila

## 1.c. Grado de cumplimiento de los objetivos programados para el ejercicio

Honako hauek izan dira 2025eko ekitaldian Ihoberen jardueran izandako emaitza azpimarragarrienak:

Los resultados más destacables de la actividad de Ihobe durante el ejercicio 2025 han sido los siguientes:

| **Pogramaturiko helburuen betetze-maila / Grado de cumplimiento de los objetivos programados**<br>Helburua/Objetivo Ekintza/Acción | | Aurreikusitako magnitudea<br>Magnitud prevista | Eskuratutako magnitudea<br>Magnitud obtenida | Desbideratzeei buruzko iruzkinak<br>Comentarios desviaciones |
|---|---|---|---|---|
| **Trantsizio energetikoa eta klimatikoa** | **Transicion energética y climática** | | | |
| Ekintza klimatikoa bultzatu da. Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legea hedatzea funtsezkoa da Euskadiko lurraldearen neutraltasun- eta erresilientzia-helburuak lortzeko. Administrazioan eta eragileen artean gobernantza-tresnak diseinatzea eta | Se ha impulsado la acción climática El despliegue de la Ley 1/2024 de transición energética y cambio climático es clave para conseguir los objetivos de neutralidad y resiliencia del territorio de Euskadi. El diseño y puesta en marcha de los instrumentos de | | | |

| Pogramaturiko helburuen betetze-maila / Grado de cumplimiento de los objetivos programados<br>Helburua/Objetivo Ekintza/Acción | | Aurreikusitako magnitudea<br>Magnitud prevista | Eskuratutako magnitudea<br>Magnitud obtenida | Desbideratzeei buruzko iruzkinak<br>Comentarios desviaciones |
|---|---|---|---|---|
| abian jartzea izan dira jarduketa-ardatz nagusiak. Tresna horien artean daude Bulegoa, Itun Soziala eta Herritarren Batzarra. Horrez gain, zeharkako tresnak landu dira, hala nola trantsizio energetikoaren eta klimatikoaren ikuspegia duten aurrekontuak, bai eta plangintza integratu berria ere. Naturan oinarritutako soluzioak bultzatuta, alerta goiztiarreko sistemak hobetuta eta azpiegitura sentikorren erresilientzia hobetzeko lan eginda ekin zaio egokitzapen-ekintzari. | gobernanza tanto en la administración como en los distintos agentes, como son la Oficina, el Pacto Social y la Asamblea ciudadana, ha sido los ejes centrales de actuación. Adicionalmente, se ha trabajado en instrumentos transversales como los presupuestos con perspectiva de transición energética y climática, así como la nueva planificación integrada. La acción adaptativa se ha abordado a través del impulso de las Soluciones basadas en la naturaleza, la mejora de los sistemas de alerta temprana y el trabajo para mejorar la resiliencia en las infraestructuras sensibles. | | | |
| KAIA instituzioarteko koordinazio-mahaia eratu da, klima-aldaketara egokitzeko proiektu erakusleen definizioan aurrera egiteko eta mahaia osatzen duten eragileen gobernantza finkatzeko. | Se ha configurado la mesa de coordinación interinstitucional KAIA *para* avanzar en la definición de los proyectos demostradores de adaptación al cambio climático y afianzar la gobernanza de los agentes que la componen. | | | |
| Euskadiko Klimaren Egoerari buruzko lehen txostena egin da, bertako klima-aldaketari buruzko aurkikuntza nagusiak analizatzen dituena. Euskadiko klimatologiak zenbait klima-eremu (atlantikoa, mediterraneoa, trantsizioa) ditu ezaugarri, eta, beste aldagai batzuen artean, Bizkaiko golkoarekin itsas muga izateak eragiten dio. | Se ha elaborado el primer informe del Estado del Clima en Euskadi que analiza los principales hallazgos sobre el cambio climático en Euskadi, cuya climatología está caracterizada por varias zonas climáticas (atlántica, mediterránea, transición) y afectada, entre otras variables, por limitar litoralmente con el Golfo de Bizkaia. | | | |
| EEErekin koordinatuta, 2024ko Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Plana ebaluatu da, eragile guztien artean Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako epe luzeko bide-orri berriaren eta 2030erako estrategiaren parte-hartzea diseinatu aurreko urrats gisa. | Se ha evaluado, en coordinación con el EVE, el Plan de Transición Energética y Cambio Climático 2024 como paso previo al diseño participado entre todos los agentes de la nueva Hoja de ruta de Transición Energética y Cambio Climático a largo plazo y la estrategia a 2030. | | | |
| Berotegi efektuko gasen emisioak kontabilizatu dira eta klima-aldaketak lurraldean dituen ondorioak monitorizatu dira, eragileentzako klima-zerbitzu gisa eskuragarri dagoen informazio guztia integratuta. | Se han contabilizado las emisiones de GEI y monitorizado los efectos del cambio climático en el territorio, integrando toda la información disponible en forma de servicios climáticos para los diferentes agentes. | | | |
| Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legean jasotako tresnak diseinatu eta abian jarri dira, hala nola Trantsizio Energetikorako eta Klima Aldaketarako Itun Sozialean parte hartzeko prozesua edo Herritarren Batzarra, baita Trantsizio Energetikoaren | Se han diseñado y puesto en marcha las herramientas incorporadas en la Ley 1/2024 de transición energética y cambio climático, como son el proceso de participación del Pacto Social por la Transición Energética y Cambio Climático o la Asamblea ciudadana, así como la Oficina vasca de Transición Energética y Cambio Climático. | | | |

| **Pogramaturiko helburuen betetze-maila / Grado de cumplimiento de los objetivos programados**<br>Helburua/Objetivo | Ekintza/Acción | Aurreikusitako magnitudea<br>Magnitud prevista | Eskuratutako magnitudea<br>Magnitud obtenida | Desbideratzeei buruzko iruzkinak<br>Comentarios desviaciones |
|---|---|---|---|---|
| eta Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa ere. | | | | |
| Udalerriei eta eskualdeei babesa eman zaie Udalsarea 2030 sarearen esparruan klima- eta energia-planak egitea eta ezartzea bultzatzeko, eta udalerriek klimarako eta energiarako alkatetzen Europako Itunean parte hartzea sustatzeko. | Se ha dado apoyo a los municipios y comarcas para fomentar la elaboración e implantación de Planes de Clima y Energía en el marco de la red Udalsarea 2030 e incentivado la participación de los municipios en el Pacto europeo de alcaldías para el clima y la energía. | | | |
